



## **MEMORIA AURRETIAZKO JAKINARAZPENA COMUNICACIÓN PREVIA**

### **A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak**

Pasaia Udalak uste du beharrezkoa dela udalerrian etxeko animalien edukitzea eta ongizatearekin lotutako hainbat arazo lantzea. Arau uniformerik ez izateak kudeaketa eraginkorra zailtzen duten egoerak sortu ditu. Detektatutako arazo nagusien artean, animalien identifikazio eta erregistro egoki baten kontrolik eza dago, eta horrek zaildu egiten du abandonatuta edo galduta dauden animaliak aurkitzea. Horrez gain, bizikidetzaren arazoak antzeman dira bizilagunen artean, jokabide desagokien ondorioz, hala nola, espazio publikoetan gorozkiak ez jasotzea, zarata gehiegizkoa edo animaliak baldintza desagokietan mantentzea.

Txakurren Potentzialki Arriskutsuei dagokienez, udal mailan araudi espezifikorik ez izateak hutsuneak sortu ditu funtsezko alderdi batzuetan, hala nola lizentzien lorpenean, segurtasun neurriak hartzean eta animalia horiek espazio publikoetan zirkulatzean. Honek arrisku potentzialak eragiten ditu bai herritarrentzat, bai animalientzat berarentzat.

Bestalde, animalien ongizatea bermatzeko beharra antzeman da, tratu txarren, abandonuen edo hazkuntza kontrolik gabearen egoerak prebenituz, eta jabeei haien higie- eta osasun-arloko eta zaintzako erantzukizunak betearaziz.

Azkenik, lehentasunezkoa da udal araudia autonomia- eta estatuko araudiarekin bat etortzea animalien ongizatearen arloan, bai Animalien Eskubide eta Ongizatearen 7/2023 Legearekin, bai Euskal Herriko Etxeko Animaliak Babesteko 9/2022 Legearekin, eskumen horien kudeaketan koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

### ***A) Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa***

El Ayuntamiento de Pasaia considera que es necesario abordar diversas problemáticas relacionadas con la tenencia y el bienestar de los animales de compañía en el municipio. La falta de una regulación uniforme ha generado situaciones que dificultan la gestión efectiva de estas cuestiones. Entre los principales problemas detectados se encuentra la carencia de un control adecuado sobre la identificación y registro de los animales, lo que complica la localización de aquellos que se encuentran en situación de abandono o extravío. Asimismo, se han detectado conflictos de convivencia vecinal derivados de comportamientos inadecuados, como la no recogida de deyecciones en espacios públicos, el ruido excesivo y el mantenimiento de animales en condiciones inapropiadas.

En lo que respecta a los perros potencialmente peligrosos, la inexistencia de una regulación específica a nivel municipal ha generado lagunas en aspectos clave como la obtención de licencias, la adopción de medidas de seguridad y la circulación de estos animales en espacios públicos. Esto resulta en riesgos potenciales tanto para la ciudadanía como para los propios animales.

Por otro lado, se observa la necesidad de garantizar el bienestar de los animales mediante la prevención de situaciones de maltrato, abandono o cría descontrolada, y de asegurar que los propietarios cumplan con sus responsabilidades higiénico-sanitarias y de cuidado.

Finalmente, es prioritario alinear la regulación municipal con la normativa autonómica y estatal en materia de bienestar animal, tanto con la Ley 7/2023 de derechos y bienestar de los animales como con la Ley 9/2022, de Protección de los Animales Domésticos en el País Vasco, con el fin de garantizar coherencia y eficacia en la gestión de estas competencias.

## **B) Onartzearen beharra eta egokitasuna**

Beharrezkoa da udalerrian etxeko animalien babesa eta ardurazko edukitza modu espezifikoan arautuko duen ordenantza berri bat onartzea, Potentzialki Arriskutsuak diren Txakurrak barne, eta tokiko araudia eguneratzea lege-esparru berrietara egokitzeko. Indarrean dagoen ordenantza eguneratu gabe egoteak zaildu egiten du animalien ongizatearekin eta bizilagunen arteko bizikidetzarekin lotutako arazoak behar bezala kudeatzea.

Zentzu honetan, ordenantza berriak ez du soilik estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak ezarritako xedapenak betetzen ahalbidetuko, baizik eta Pasaiaiko udalerrriaren berezitasunetara egokituko ditu.

Era berean, araudi berriak etxeko animalien ongizatea babesten lagunduko du, eta abandonua, tratu txarrak eta animalien ongizatearen aurkako beste jokabide batzuk prebenitzeko neurri zehatzak ezarriko ditu. Horrez gain, pertsonen eta animalien arteko bizikidetzak hobetzen lagunduko du, espazio publikoetan animalien zirkulazioa, gorozkien kontrola eta baldintza higieniko egokietan edukitzea arautuz. Azkenik, ordenantza hau aukera bat da herritarren parte-hartzea sustatzeko araudia diseinatzean, bizilagunek Pasaiaiko beharrak eta errealitateak islatzen dituzten proposamenak aurkeztu ahal izateko.

## **C) Araudiaren helburuak**

Ordenantzaren helburu nagusia da udalerrian etxeko animalien edukitza arautzea, animalien ongizatea eta herritarren arteko bizikidetzak bermatuko duen arau-esparrua sustatuz. Helburuen artean daude edukitza arduratsua bultzatzea, animalien identifikazio eta erregistroaren bidez, baldintza higieniko-sanitario egokiak bermatzea eta abandonua eta tratu txarrak prebenitzea. Era berean, espazio publikoen erabilera arautzea bilatzen da, balizko eragozpenak minimizatzeko eta animalien jabeen eskubideen eta komunitate osoaren ongizatearen arteko oreka sustatzeko.

## **B) Necesidad y oportunidad de su aprobación**

Resulta imprescindible la aprobación de una nueva ordenanza que regule de manera específica la protección y tenencia responsable en el municipio de los animales de compañía, incluidos los perros potencialmente peligrosos, para actualizar la normativa local a los nuevos marcos legislativos. La falta de actualización de la ordenanza vigente está dificultando la correcta gestión de problemas vinculados al bienestar animal y la convivencia vecinal. En este sentido, la nueva ordenanza permitirá no solo cumplir con las disposiciones establecidas por las normativas estatal y autonómica, sino también adaptarlas a las particularidades locales del municipio.

Asimismo, esta nueva normativa contribuirá a proteger el bienestar de los animales de compañía y a establecer medidas concretas que permitan prevenir el abandono, el maltrato y otras conductas contrarias al bienestar animal. Además, facilitará una mejor convivencia entre personas y animales mediante la regulación de aspectos como la circulación de animales en espacios públicos, el control de deyecciones y la tenencia en condiciones higiénicas adecuadas. Por último, esta ordenanza representa una oportunidad para fomentar la participación ciudadana en el diseño de la normativa, recogiendo propuestas que reflejen las necesidades reales de los vecinos y vecinas de Pasaia.

## **C) Objetivos de la normativa**

La ordenanza tiene como objetivo principal regular la tenencia de animales de compañía en el municipio, promoviendo un marco normativo que garantice tanto el bienestar animal como la convivencia ciudadana. Entre sus propósitos se encuentra fomentar una tenencia responsable mediante la identificación y registro de los animales, garantizar condiciones higiénico-sanitarias adecuadas y prevenir el abandono y el maltrato animal. Además, se busca regular el uso de los espacios públicos para minimizar posibles molestias y promover un equilibrio entre los derechos de los propietarios de animales y el bienestar de la comunidad en

Ordenantzak, gainera, kontrol- eta zigor-esparru bat ezarri nahi du, udal-agintariei araudiaren aurkako jokabideak modu eraginkorrean kudeatzeko aukera emango diena, animalien ongizatearen eta bizikidetzaren armoniatsuen printzipioak betetzea sustatuz.

**D) Arauzko eta arauz kanpoko alternatiba posibleak**

Ez dira bideragarritzat jotzen bestelako alternatiba arauz kanpokoak, hala nola, jarduerak sentibilizazio-kanpainetara edo udalerritik gorako araudiaren betetze hutsalera mugatzea. Aukera horiek ez lirateke nahikoak izango udalerrian antzemandako arazo zehatzei aurre egiteko, eta Pasaiaiko Udalaren gaitasuna mugatuko lukete tokiko beharrei erantzuteko.

Udal ordenantza espezifiko bat lantzea aurkezten da irtenbiderik egokien eta eraginkorren gisa, izan ere, horri esker, etxeko animalien babesa, ongizatea eta ardurazko edukitza modu integralean eta uniformearen arautu ahal izango dira. Ikuspegi horrek lege-betebeharrak betetzea zein antzemandako bizikidetzaren gatazkak konpontzea bermatuko du.

**E) Arduraduna: Pasaiaiko Udaltzaingo Saila.**

**EKARPENAK:** Udal erregistro elektronikoaren edo aurrez aurreko erregistroaren bidez.  
**EPEA:** 20 EGUN, ARGITARATZEN DENETIK KONTATZEN HASITA

general.

La ordenanza también pretende establecer un marco de control y sanción que permita a las autoridades municipales gestionar de manera eficaz las conductas contrarias a la normativa, promoviendo así el cumplimiento de los principios de bienestar animal y convivencia armónica.

***D) Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias***

No se consideran viables otras alternativas no regulatorias, como la limitación de las acciones a campañas de sensibilización o al cumplimiento exclusivo de la normativa supramunicipal. Estas opciones serían insuficientes para abordar las problemáticas específicas detectadas en el municipio y limitarían la capacidad del Ayuntamiento para responder a las necesidades locales.

La elaboración de una ordenanza municipal específica se plantea como la solución más adecuada y eficaz, ya que permitirá regular de manera integral y uniforme los aspectos relacionados con la protección, bienestar y tenencia responsable de los animales de compañía. Este enfoque garantizará tanto el cumplimiento de las obligaciones legales como la resolución de los conflictos de convivencia detectados.

**E) Responsable: Departamento de Guardia municipal del Ayuntamiento de Pasaia.**

**APORTACIONES:** A través del registro de entrada municipal electrónico o presencial.

**PLAZO:** 20 DÍAS, CONTADOS A PARTIR DE SU PUBLICACIÓN.